

BIDERNABARKOAN PROIEKTUA

Zer egin nahi dugun

Zailtasunak dituzten pertsonendako aldi baterako bizitokia

Arrazoiak

Azken hilabetoetan egiaztatu ahal izan dugu pertsona batzuek dituzten zailtasunak etxea aurkitzeko. Haiekin batera badira bizi diren giroetatik atera ezinean daudenak, besteak beste, etxebizitza ezagatik. Pertsona hauek, beste ezaugarrien artean, ondoko hauek dituzte:

1. Beste herrialdeetatik etorriak dira eta gurean ez dute sare naturalik.
2. Familiatik kanporatuak izan direnak.
3. Egoera ekonomiko eskasa dutenak.

Helburuak

1. Etixerik gabeko jendeari aldi baterako bizitokia eskaini.
2. Jendearen txertatze prozesua lagundu eskualdean bizitokiaren bidez.

Norendako

1. Eskualdean bizi den edo bizi nahi duenarentzat.
2. Etxebizitza arazo nagusia izatea.
3. Elkarbizitzarako gai izatea.
4. Bizi proiektu bat aintzineran eraman nahi izatea.
5. Kontuan hartuta, era guztietako kasoak ager daitezkeela, ondoko irizpideak kontuan hartuko dira:
 - a. Oro har, harrera indibidualak egingen dira, gelak halakoak direlako.
 - b. Bikoteen kasuan, eskualdera ailegatu berriak badira, eta ez badago beste argibiderik, ez dira etxean sartuko. Bestalde, eskualdean sustraitutako jendea bada, eta egiaztatutako ustekabeak tarteko (okupatzen zuten etxea utzi beharra arazo ekonomikoak direla eta) baloratuko da salbuespenak egitea. Betiere, ahalik eta berme handienarekin (adibidez, etxea hutsik egonez gero, errazagoa izanen litzateke bikote bat hartzea).

Errekurtsoak

a. Bizitokia

Errentan hartuko da etxebizitza bat Elizondon. Ahal izanez gero, hiru gela izanen ditu.

b. Giza baliabideak

b.1 Bidelagun elkarte

Proiektua Bidelagun elkartearen ekimena da.

Gutxienez bi boluntariok eramanen dute proiektua eta haien betebeharrak ondokoak izanen dira:

1. Harrera egitea.
2. Etxea kudeatzea.
3. Jendearen jarraipena.
4. Ebaluazioa.

b.2 Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak

Hauen zereginak ondokoak izanen dira:

1. Detekzioa eta harrera.
2. Bidelagunekin batera, koordinazioa proiektu pertsonaletan laguntzeko.
3. Sistemaren prestazioak jendearen esku jartzea: oinarrizko errenta, enplegu babestua, larrialdietarako diru-laguntzak,

c. Funtzionamendua

1. Bi bide kasuak ezagutzeko:
 - a) Oinarrizko gizarte zerbitzuak zein osasun zerbitzuetako gizarte langileak
 - b) Bidelagun
2. Kasua ezagutu bezain pronto, sarea osatzen dutenak harremanetan jarriko dira alde batetik, etxebizitza gaia bideratzeko, eta bestetik, lan interbentziorako plan bat elkarrekin osatzeko.
3. Etxebizitzari begira:
 - a) Bidelaguneko bi lagunek elkarrizketatuko dute pertsona (ezagutu haren egoera orokorra, asmoak, nahiak, mugak, jarrera, ...).
 - b) Etxebizitzan sartzeko azken erabakia Bidelagunen esku dago. Erabaki hau gutxienez bi pertsonen artean hartuko da.
 - c) Boluntarioek etxeko funtzionamendua azalduko diote (arauak, denbora, baldintzak, kontratua, proiektu pertsonalaren beharra, ...) etxebizitza behar duenari.
 - d) Boluntarioak astean behin pertsonarekin mintzatuko dira (etxeko martxa, bizikidetzaren etxekoekin zein

atariko bizilagunekin , zailtasunak, egindako ahaleginak, beharrak,...).

4. Gizarteratze prozesuari begira:

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eta Bidelagunak elkarren eskutik egin beharko lukete jarraipena. Horrek esan nahi du interbentzio plan bat adostu behar dutela hainbat gai jorratzeko: ekonomikoa, lana, etxebizitza, heziketa eta apoio legala zein emozionala.

5. Araudia

Beharrezko ikusten da araudi zehatz bat prestatzea bai Bidelagunek bai bizitokia erabiltzen ahal dutenek ezagutu dezaten. Hona hemen hainbat zehaztapen:

- a) Etxean bere borondatez sartzen da.
- b) Pertsonak kontrato moduko bat sinatuko du hilabetero haren adostasuna azaltzeko.
- c) Etxean ezin da erroldatu, beste bide batzuk erabili beharko dira..
- d) Etxean gehienez hiru hilabete eman ahal izanen dute. Egoeraren arabera baloratuko da epe hau luzatea.
- e) Etxean egoteagatik ordaindu beharko da. Sartu baino lehen aurreratu beharko dute lehenengo ordainketa eta fidantza bat.. Etxea uztean fidantza hori itzuliko zaie, baldin eta gela hartu bezala uzten badute.
- f) Gela bakoitzak bere giltza izanen du.
- g) Etxeko mantenimendua etxean bizi direnen artean zaindu beharko dute. Garbitasuna denen artean txandatur.
- h) Etxean ez dira bisitak onartzen.